

Ahozko komunikaziorako prestakuntza: oinarriak, testuingurua eta baliabideak

Otsailak 2 - Apirilak 26
2026

ESKAINITAKO PLAZAK
100

MODALITATEA
Presentzial, online asinkrono eta sinkrono

HIZKUNTZA
Euskara

KREDITU KOPURUA
3 ECTS Kreditu

PREZIOA
122,75 €

IRAKASLEKUA
Bilboko Hezkuntza Fakultatea eta *EHUon* irakaskuntza plataforma

1. Aurkezpena

a. Tituluaren gakoak

Ahozko komunikazioa funtsezko trebetasuna da hainbat esparru profesionaletan, bereziki, hezkuntzan, kulturen eta gizarte esparruetan. Ahozko komunikazioaren bidez, informazioa transmititzeaz gain, jarrerak, emozioak eta harreman sozialak eraikitzen dira. Horregatik, beharrezkoa da komunikazio-gaitasun sendoa garatzea, prestakuntza egituratu eta diziplinartekoaren bidez.

Prestakuntza honek komunikazio-kompetentzia garatzea du helburu azpikompetentzia espezifikoak integratuz: prosodikoa, pragmatikoa, soziolinguistikoa eta linguistikoa.

Mikrokredentzial honen bidez, parte-hartzaileek ahozko komunikazioan eta ikus-entzunezko hizkeraren erabileran trebatzeko beharrezko gaitasunak eskuratu dituzte. Horretarako, prestakuntzak eduki teorikoak, sozialak eta teknikoak uztartzen ditu.

Prestakuntzak 3 ECTS kreditu ditu, 10 aste irauten du eta hiru modulutan banatuta dago (Ahozko komunikazioaren oinarri linguistikoak; Gizarte testuinguruak eta ahozko interakzioa; Ahozko adierazpenerako baliabide eszenikoak, teknikoak eta didaktikoak). Eskolak modu presentzialean Bilboko Hezkuntza Fakultatean izango dira eta, era berean, modalitate (a)sinkronoan ere izango dira eskuragarri *EHUon* plataforman.

b. Lau arrazoi titulu hau aukeratzeko

- ✓ Ahozko komunikazioa trebetasun giltzarria da hezkuntzan, kulturen eta gizarte esparruetan lan egiten duten profesionalentzat. Titulu honek esparru horietan jarduteko prestakuntza espezializatua eskaintzen du.
- ✓ Mikrokredentzialak ahozko komunikazioaren dimentsio linguistikoak, sozialak eta teknikoak uztartzen ditu ikuspegi osoa eta aplikatua eskainiz.
- ✓ Ikasitakoa lan-eremu ugaritan aplikatu daiteke: eskola testuinguruan, aisialdiko jardueretan, dramatizazioan, ahozko aurkezpenetan edo publikoarekin harreman zuzena eskatzen duten egoeretan.
- ✓ EHUren bermea duen 3 ECTS kredituko mikrokredentziala iraupen laburrekoa eta eguneroko jardunarekin bateragarria da. Modalitate presentziala eta (a)sinkronoa konbinatuz, prestakuntza eskuragarri, malgu eta eraginkorra eskaintzen du.

c. Irteera profesionalak

Ahozko komunikazioan trebatutako profesional gisa jardutea hezkuntza, kultura, aisialdi eta gizarte esparruetan komunikazio-trebetasunak modu eraginkorrean aplikatuz.

2. Azalpena

a. Nondik-norakoak

Ahozko komunikazioan eta bere trebakuntzan gaitasuna eskuratzeko diseinatua dago ikastaro hau.

Ahozko komunikazioa bat-batekoa, prestatua edota irakurria izan daiteke zenbait lanbidetan, besteak beste, **hezkuntza alorrean, formalean zein ez-formalean** (eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdiko begiraleen ekintzetan, ahots gorako ipuin irakurketan, antzerkigintzan, etab.).

Ahozko komunikazioa eraginkorra izateko funtsezkoa da komunikazio-kompetentzia garatzea. Kompetentzia horren barnean hainbat azpikompetentzia bereizten dira; hala nola, prosodikoa, pragmatikoa, soziolinguistikoa eta linguistikoa. Ondoren zehazten da hauetako bakoitza:

Prosodia gaitasuna **ikus-entzunezko hizkerarekin** lotuta dago, eta informazio linguistikoaren, ez-linguistikoaren eta paralinguistikoaren berri ematen digu. Alegia, informazio linguistikoari dagokionez, ahoskera zaindua, azentua, intonazioa, fokua eta esaldiaren egitura adierazten laguntzen du. Jarrera, intentzioak eta estiloak ere adieraz ditzakegu ahozko melodia eta keinuen bitartez (informazio paralinguistikoa), baita emozioak nahiz ezaugarri fisikoak eta pertsonalak ere (informazio ez-linguistikoa).

Gaitasun pragmatikoak ahalbidetzen digu hizkuntzaren nahiz hizkuntzaz kanpoko elementuen bidez, keinuez baliatuz adibidez, ironikoa izaten, txantxak egiten, kortesia nahiz jarrerak adierazten, besteak beste. Hau da, adierazten dugunaren **hizkuntza-funtzioa** zehazten laguntzen digu. Baina, gaitasun honi estuki lotuta dago zein keinu erabili, nolako esapidea hautatu jarrera edota txantxa jakin bat egiteko, edota gurekin hitz egiten ari den kideak erabilitako hizkuntza aldaera jakinak zer esan nahi duen jakiteko ahalmena, hots, gaitasun soziolinguistikoa.

Beraz, ikastaro honek ikaslea ahozko komunikazioan trebatuko luke hizkuntzaren melodiari, keinuei eta gorpuzkerari, hizkuntza-funtzioei zein **hizkuntza-aldaerei eta ezaugarri linguistikoei** garrantzia emanaz. Horretarako, **gai teorikoak** (ahoskera, azentua, prosodia, hizkuntza-trebetasunak, bariazio linguistikoa eta soziolinguistikoa), **sozialak** (Komunikazio Ez Bortitza, inguruko hizkuntzak, kortesia-erlazioak eta hezkidetzak) eta **eszenikoak, teknikoak eta didaktikoak** (baliabide eszenikoak, teknikoak eta didaktikoak) landuko dira.

Mikrokredentziala osatzean **ziurtagiria** emango da eta horren bidez egiaztatuko da parte-hartzaileak ikus-entzunezko hizkeraren erabileran gaitasuna eta trebetasuna eskuratu dituela. Era berean, ziurtatuko da hizkuntza-funtzioa eta aldaerak kontuan

izanik, komunikazio egokia bermatzeko funtsezkoak diren eduki teorikoak, sozialak eta teknikoak landu direla.

3. Programa

a. Eskola orduak

Ikastaroak 10 aste iraungo du 2026ko otsailaren 2tik apirilaren 26ra.

Astean ikasgai bat landuko da eta hiru orduko dedikazioa aurreikusten da: bi ordu presentzial edo online sinkrono astelehenero eta beste ordubete, modalitate asinkronoan, bidaliko diren zereginak, *EHUon* plataformaren bidez, egiteko. Eduki berria astelehenetan jarriko da eskuragarri plataforman.

b. Ebaluazio prozedura

- ✓ Irakasleak irakasgai bakoitzerako planteatutako zeregina (idatzizko txostena, autoebaluazioak, online galdetegia, etab.): % 100

c. Ikastaroak

Gaia	Irakaslea(k)	Eguna eta ordua	Hizkuntza	ECTS	Mota	Modalitatea
1. modulua: ahozko komunikazioaren oinarri linguistikoak						
Ahoskera eta euskara batua	Ariane Ensunza	Otsailak 2 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa
Prosodia eta ahots gorako irakurketa	Aintzane Etxebarría	Otsailak 9 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Presentziala
Hizkuntza trebetasunak (Ahozko testu-motak)	Naia Eguskiza	Otsailak 16 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa
Bariazio linguistikoa eta soziolinguistikoa	Aitor Iglesias	Otsailak 23 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa
2. modulua: gizarte testuinguruak eta ahozko interakzioa						
Komunikazio Ez Bortitza (KEB)	Nerea Mendizabal	Martxoak 2 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Presentziala
Inguruko hizkuntzak	Aitor Carrera	Martxoak 9 17:00-19:00	Gaztelania	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa
Familiekin hezkuntza-elkarriketak	Oihana Lujanbio eta Lorea Unamuno	Martxoak 16 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Presentziala
Generoa – Hezkidetzeta eta hizkuntza inklusiboa	Maite Santiago	Martxoak 23 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa
3. modulua: ahozko adierazpenerako baliabide eszenikoak, teknikoak eta didaktikoak						
Dramatizazioa	Ander Lipus	Apirilak 13 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Presentziala
Komunikaziorako baliabide teknikoak eta didaktikoak	Luis Pastor eta Juan Abasolo	Apirilak 20 17:00-19:00	Euskara	0,30	Nahitaezkoa	Online sinkronoa

4. Ikaskuntza-emaizak

ESCOren arabera ezagutzeekin eta gaitasunekin lotutako ikaskuntza-emaizak, ondoren zehazten dira:

0111 ezagutzeekin lotuta:

- Hezkuntza formalean eta ez formalean komunikatzen jakitea hitzen nahiz gorpuzkeren bidez.

- Hezkuntza formalean eta ez formalean instrukzioak emateko irizpideak jakitea hitzen eta gorpuzkeren bidez.
- Ahozko hizkeraren estrategien bidez ikasleen parte hartzea sustatzen jakitea ikaskuntza prozesuan.

0114 ezagutzarekin lotuta:

- Ahozko komunikaziorako estrategiak ezagutzea eta erabiltzea, aldagai linguistikoak eta soziolinguistikoak kontuan izanik.
- Ikasle helduentzako instrukzioa egiten jakitea.
- Ikasle helduentzako instrukziorako baliabideak ezagutzea.

0231 ezagutzarekin lotuta:

- Artikulazio-soinuak identifikatzen eta produzitzen jakitea.
- Gorpuzkerak interpretatzen jakitea eta hizkuntza funtzioen arabera erabiltzen jakitea.
- Egun hitz egiten diren eta ingurunean ditugun hizkuntzen inguruko ezaugarriak ulertzea.

Oinarrizko gaitasunekin lotuta:

- Euskararen ezagutza eta konpetentzia.
- Ahozko elkarrenginaren lotutako estrategiak ezagutzea eta erabiltzea: Komunikatzen, laguntzen, negoziatzen, arazoei irtenbideak garatzen, planak edo zehaztapenak sortzen, ahozko testua eta gorpuzkera sortzen, audientzia entretenitzeko jarduten eta beste batzuei ezagutzak ematen jakitea.

Zeharkako gaitasunekin lotuta:

- Euskara jakitea.
- Testuinguru formalean eta informalean hitz, zeinu eta arauen bidez zenbait ahozko testu ondo egiten jakitea: Informazioa, ideiak, kontzeptuak, pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea eta trukatea, eta testuinguru formal eta informalean desadostasunak konpontzea.

IKASKUNTZA-ESPERIENTZIAREN MAILA, EQF, EUROPEAN QUALIFICATIONS FRAMEWORK KUALIFIKAZIO-ESPARRUAREN ARABERA

EQF 5 C (Goi-mailako espezializazio ikastaroa)

ESCO, EUROPEAN SKILLS, COMPETENCES, QUALIFICATIONS AND OCCUPATIONS GAITASUN-ESPARRU BATZUK.

ESCOren araberrako ezagutzak, gaitasunak eta zeharkako gaitasunak zehazten dira.

Ezagutzak:

0111. Hezkuntza zizentziak. Komunitatean hezkuntza. Hezkuntza-metodo formal edo informalean bidez gizarteko komunikazio-garapena.

<http://data.europa.eu/esco/skill/4a752bd2-9fe9-4539-ab5a-8edc0dec6ef0>

0111. Hezkuntza zientziak. Instrukzio estrategiak. Ahozko hizkeraren estrategien bidez ikasleen parte hartzea sustatzea ikaskuntzan.

<http://data.europa.eu/esco/skill/81ad8286-cc55-4a08-92a6-38474c35c893>

0114. Espezializazio ikasgaiaren bidez irakasleen formazioa. Helduentzako hezkuntza. Ikasle helduei zuzendutako instrukzioa, bai jolasaren ikuspegitik, bai ikuspegi akademikotik, ahozko hizkeraren hobekuntzarako edo ikasleak lan-merkatutarako hobeto prestatzeko.

<http://data.europa.eu/esco/skill/60856bbb-e5db-4398-babb-300a24a7fe97>

0231. Hizkuntzaren jabekuntza. Fonetika. Ahotsaren ezaugarri fisikoak: produkzioa, ezaugarri akustikoak eta egoera neurofisiologikoa.

<http://data.europa.eu/esco/skill/dc892a23-091b-486e-85b9-fe2989414796>

0231. Hizkuntzaren jabekuntza. Gorpuzkera. Gorpuzkearen bidez bidaltzen diren seinale ez linguistikoetan arreta jartzea eta interpretazioa.

<http://data.europa.eu/esco/skill/1a59af95-f36a-4d99-a5ca-6a7a46e2ecb0>

0231. Hizkuntzaren jabekuntza. Hizkuntza biziak. Egun erabiltzen diren hizkuntzak.

<http://data.europa.eu/esco/skill/310da5da-517c-4496-a673-92001098a2b7>

Oinarrizko gaitasunak:

L. Competencias lingüísticas y conocimiento de lenguas: Vasco.

<http://data.europa.eu/esco/skill/a28fa5f1-be5b-4608-8376-acea8c2f8cb1>

S. Comunicación, colaboración y creatividad. Komunikatzea, laguntzea, lotzea eta negoziatzea, arazoei irtenbideak garatzea, objektuak eta sistemak diseinatzeko planak edo zehaztapenak sortzea, ahozko testua eta gorpuzkera sortzea, audientzia entretenitzeko jardutea eta beste batzuei ezagutzak ematea.

<http://data.europa.eu/esco/skill/dc06de9f-dd3a-4f28-b58f-b01b5ae72ab8>

Zeharkako gaitasunak:

T1.1. Hizkuntzak jakitea.

<http://data.europa.eu/esco/skill/a28fa5f1-be5b-4608-8376-acea8c2f8cb1>

T4. Konpetentzia sozialak eta komunikazioak. T4.1. Komunikazioa.

Informazioa, ideiak, kontzeptuak, pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea eta trukatzeko, eta testuinguru formal eta informaletan desadostasunak konpontzea, hitz, zeinu eta arauen sistema partekatua erabiliz.

<http://data.europa.eu/esco/skill/6f142deb-03a9-4cd7-94ce-e0f023ae2169>

5. Irakasleak

EHUko irakasleak:

Juan Abasolo

Aintzane Etxebarria

Ariane Ensunza

Naia Eguskiza

Aitor Iglesias

Oihana Lujanbio

Luis Pastor
Maite Santiago
Lorea Unamuno

EHUkoak ez diren irakasleak:

Aitor Carrera
Ander Lipus
Nerea Mendizabal

6. Matrikula

Prezioa: 122,75 €

Profil gomendagarria

- Erdi-mailako heziketa-ziklo bateko gutxieneko prestakuntza behar da.

Prestakuntza nori zuzendua

- Adina: 25-65
- Komunikazioan interesa duen publiko orokorra
- Unibertsitateko ikasleak (Gradukoak zein Graduondokoak)
- Komunikazioan interesa duten unibertsitate titulaziorik ez duten pertsonak
- Hezkuntza formaleko nahiz ez-formaleko eremuetan diharduten irakasleak
- Ahozko komunikazioan trebatzea garrantzitsua den edozein esparrutako profesionalak

Hautatzeko-irizpideak (baldin eta 100 plazak baino eskari gehiago balego)

Titulazioaren egokitasuna: % 90

Espediente akademikoa: % 10